



luzea
eta oparoa

drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 139. alea 2006ko urria

Maria Txindurri, betiko zalakotan baiña...

Gerrate aurreko bizimoduaren barriemolle esanguratsuenetakua. Irratixan, prentsan, telebistan... sarri ikusi dabe argixa orduko Ermuaren bere bizipenak.

1906ko azaruaren lelengo egunian Izelaieta kaleko Txindurriñeko Guillermo eta Luzian etxian neska txiki bat jaixo zan: Maria Santos Bengoetxea Isasi-Isasmendi legez bataiatu eben. Eskolak Ermuan eta Eibarren hartu zitxuan eta, bere esanetan, haretatik okerkerixa gitxi einda pasau zan; errekreuetan olgatzia izaten zan beria: soka-saltuan, tortolose-tara, enadiadeka... Entretenitze erretzeko umia zan; zazpi urtekin puntua eitxen ekixan eta, haxe eskuetan, aitxa bertsolarixaren ipoin eta kantuak entzutia maitxe eban ezer baiño gehixao. Gaztetan lagunekin mendira juatezalia zan *"atsaldepeasa, afari-meriendiakin ero tortillak ero..."*. 25 urte zitxuala, 1931ko azaruaren 19xan, Jose Mari Areitioaurtena Orberekin ezkondu zan; *"dia kanputan"* (ezkondu osteko bidaia) Bilbora juan ziran. Gurasotuta, lau alaba izan zitxuezen: Maite, Arrate, Begoña eta Luzia, Gerriak egoera latza ekarri eban eurengana: hilda ama eta ahiztia, urtietarako preso aitxa eta gizona... *"Ha be pasau genduan!"* esate eban akordura ekartze ebanian. 1986xan alargundu zan.


Bere etxe azpixon dendatxo bat ekan eta saltoki baiño biltoki zan. Etorri aparteko andrazkua zan, gauzak molda



itzelakin kontatzen ekixan, harixa kostata galduaz eta kontakizuna kantu, ipuin edo bertsoren batekin adornatzeko abilezia ekan. Aurreko mendearen ahozko historixia batzen eban Euskal Telebistaren saio berezi baten, bera izan zan Bizkaiko ordezkarixa.

Euban amatau zan, 2006ko urrixaren 5ian, 100 urte luze eitxeko 26 egun falta jakozala. Anekdotetan eta gogorapenetan oparua, Miramonen telebistarako eiñdako mahai-inguru baten oporrrak nun galderiai erantzun berak: *"hará, nik senitxarte guztixak zeruan dakaraz bai eta haraxe juango nintzake!"*. Urte askotarako iraun deixela bere ondaria ermuarron akorduan!

Estibalitz González



Sentimendu gazi-gozuak dira guriak: zure hutsunia betetzen, laga dozunaren balixuaren poza. Zorixonekuak gu, zure bidailagun izateko aukeria euki dogulako; zorixonekuak atzetik datozenak, zure testigantzei esker aurrekuak ezagutzeko beta izango dabelako. Entzuteko zein irakortzeko materixala argitarauaz, zubi edo bitartekari lanetan ibilli garen guztixon aldetik, eskerrik asko beti prest eta eskura egoteagaitxik. Nere eskerrik baitxa, herritxu honen idatzibako istorixia batzeko zeu izan zaitxudalako argibide eta harro esan neikelako neu nozula zure kantu altxorren herederu nagusixa. Ondare zoragarrixorrik, iñunbez! Betiko ez, baiña ahazteziña bai, lagun estimauori!

Estibalitz González

ZUBIAURRE
ELEKTRIZITEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
48260 ERMUA

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behea
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44